

BALIO PROPOSAMENA:

Guk sortuko dugun plataformaren bidez, bezeroen eta enpresaren arteko erlazioa zuzena egotea errazten dugu, bitartekaritza gabe. Hau da, lehen esan dugun bezala, gure plataforma IA-ren bidez bultzatuta dago. IA-ren bidez, bezeroen profilak aztertzen ditugu eta haien nahiak asetu ditzazkegu modu errazago eta pertsonalizatuago batean.

Gainera, enpresei ere laguntzen diegu, langile hobereenak eta kualifikatuena hautatzerakoan erraztasunak izan dezaten. Gainera, Starworking ez da soilik tokian tokiko lan aukeretara mugatzen, baizik eta EHko gazteei mundu osoan zehar lana lortzeko aukera ematen diegu, esperientzia gehiago lortzeko eta lan aldetik etorkizun ona izateko.

Gure plataforma, gehienbat bideratuta dago EAE-ko 16 eta 24 urte bitarteko gazteentzat, beraz, guk adin honetako gazteen behar espezifikoetan espezializatzen gara, eta aldaketa posible guztiak egiten ditugu, horrela haien helburu profesionaletara egokitzeko eta bere helburu indibidualekin bat datozen aukerak eskaintzeko.

Kontaktu zuzena daukagu hezkuntza erakundeekin, mundu laboralera aterako diren ikasle lizentziatuei laguntzeko lan egoki bat eskuratu dezaketen.

Laneko web orriekin eta tokiko enpresekin aliantza sendoak ezartzen ditugu, baita maila globaleko enpresekin ere. Sare zabal horrek lan-aukera ugari bermatzen ditu, eta hainbat aukera profesional eskaintzen dizkie bezeroei.

Gainera gure plataforma erabiltzeko erraza da, nabigazioa eta enpleguetan aplikatzea erraztasuna emango duena, horrela edonork erabili dezake bai lan bilatu nahi duenak, bai lana eskeini nahi duenak.